

**Hezkuntza-indartzeko
banakako plana (HIBP)
egiteko orientabideak
oinarrizko hezkuntzan**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Hezkuntza- indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarrizko hezkuntzan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki
daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2012ko azaroa

Ale-kopurua:
200 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.: V 747-2012

Aurkibidea

AURKEZPENA	7
1. Sarrera	8
2. Hezkuntza-indartzeko banakako plana (HIBP)	
<i>Zer da Hezkuntza- indartzeko banakako plana?</i>	10
<i>Nork behar du Hezkuntza- indartzeko banakako plana?</i>	10
<i>Zertarako Hezkuntza- indartzeko banakako plana?</i>	10
3. HIBP prestatzeko aldiak eta agenteak	12
4. Esku hartzeko edukiak aukeratzeko irizpideak	14
5. Errefortzuko ikasleekin esku hartzeko irizpideak	15
6. Tutore-lana	16
7. Familiekiko hartu-emana	17
ERANSKINAK	19

Aurkezpena

Dokumentu hau bat dator Hezkuntza Sailak azken urteotan bultzatu duen eskola inklusiboaren printzipioekin. Planteamendu inklusiboak aniztasunari erantzutea jotzen du kalitatezko hezkuntza-sistemetako funtsezko ardatzat, eta indarra jartzen du ikasle guztiak ahalik eta gehien garatzeko. Azken finean, ikasle guztiei lagundu nahi die eskolan arrakasta izan dezaten.

Indarrean den araudian azaltzen diren hezkuntza-errefortzuko neurriek profesionalei eskatzen diete aukeratzeko zein den irakaskuntza-estrategiarik egokiena ikaslearen premietarako, garatzeko noberaren ahalmenak, estilo kognitiboa, eta arreta jartzeko ahalmenetan eta heltzeko erritmoetan. Baina eguneroko jardunak erakusten du jardute-eremuak (antzematea, aurreikustea, esku-hartzea eta jarraipena egitea) hain direla konplexuak ezen bete beharreko funtzioak sistematizatu behar diren, kontuan izanik nola dagoen ikaslea ikastetxean eta ingurunean.

Aurkezten dugun dokumentu hau prestatu egin da jarraibide batzuk emateko oinarritzko hezkuntzan lan egiten duten profesionalei (zuzendaritza-talde, kontsultore, orientatzaile eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei), errazago aurreikus dezaten ikasleek ikasteko izan ditzaketen zailtasunak edo eskolan izan dezaketen porrota eta errazago esku har dezaten egoera horietan. Tresna malgua izan nahi du, orientabide praktikoak jasotzen dituen, ikasle, irakasle eta ikastetxeetako berezitasun zehatzetara egokitzeko.

Animatzen dugu hezkuntza-errefortzuko banakako plana egiteko proposamen hau aztertzeko eta lantzeko irakasle-taldeko koordinazio-saioretan, eta, testuinguru aintzat hartuta, denon artean, diseinu- eta aplikazio irizpideak finkatu ditzazuen, antolamendu-baliabide guztiak aprobetxatu, tutore-lana sustatu eta familiekiko lankidetzat bultzatu.


2012ko azaroa

Ikuskari nagusia



Alfonso Fernández Martínez

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria



Cándido Hernández Garduño

1. Sarrera

Eskola inklusiboak hezkuntza-ekitatea bermatu nahi du, eta eskatzen du ikasle guztiei erantzun bat eskaintzea, oinarrizko hezkuntzako helburuak lortzeko. Hau guztia posible egiteko helburu hauek lortzen ez dituzten ikasleekin, ikastetxeko jarduera orokorraren barruan, eskola praktikatik sakondu behar da: batetik, ikasteko zailtasunak diagnostikatu behar dira; bestetik, zailtasun horiek dituzten ikasleei laguntzeko ekintzen plangintza egin, eta, azkenik, horretan zerikusirik duten agente guztien esku-hartzeak koordinatu.


Indarrean den araudiak ere ikuspegi hori jasotzen du. Horrela, LOEk, Eusko Jaurlaritzaren 175/2007 Dekretuak, oinarrizko hezkuntzaren curriculumak sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak (34.1. artikulua) eta 2008ko uztailaren 7ko Agindua, oinarrizko hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duena (20. artikulua), adierazten dute:

- Lehen Hezkuntzan, *Ikasleak hurrengo hezkuntza-ziklora igaroko dira ikasi ez dituztenak gorabehera, horrek ez badu eragozten hurrengo zikloari behar bezalako probetxua ateratzea*. Hurrengo ziklora igaroko dira, halaber, bermatzen bada *laguntza emango zaiola ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan*. Gora egin ezean, *oinarrizko gaitasunak indartzeko edo berreskuratzeko berariazko plan batez lagundu beharko zaie*.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, *“irakasgai guztiak gainditu gabe hurrengo ikasturtera igarotzen direnek heziketa-prozesua indartzeko irakasle-taldeak ezarriko duen programa egin beharko dute (ikasi gabekoa ikastea izango da programa horren helburua)”*. Gora egin ezean, *“neurri horiek hartuta, berariazko plan bat egin beharko da ikasle bakoitzarentzat, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzera bideratua”*.

Ildo horretatik, Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoetan 2012-2013 ikasturtea antolatzeke moduari buruzko ebazpenetan (2.3 atalean) zehazten duenez, *“Ikastetxe bakoitzak ezarri beharko du bertako Hezkuntzako errefortzuko plana, eta bertan jasoko dira ikasleen laguntza-premiak asetzeko egokien ikusten diren ekintza eta estrategiak (...) Errefortzu-plan horrek Aniztasunari arreta emateko planean sartuta egon beharko du”*

Beraz, Hezkuntza indartzeko banakako planaren abiapuntua da aztertzea zeintzuk diren ikasturteko laguntza- eta indartze-premiak; era berean, plan horrek jasotzen du nola antolatu baliabideak, premia horiei erantzuteko, betiere klaustroak ikastetxearen curriculum-proiektuan (ICP) ezarritako irizpide eta prozedurei jarraiki. Zenbat eta gehiago garatu ICPren **aniztasunari erantzuteari** buruzko atala (aniztasunari erantzuteko irizpide

adostuak; neurriak, prozedurak, arduradunak eta erroldatzeko ereduak), orduan eta errazago izango da *Urteko errefortzuko plana* prestatzea.



Esparru horretan, agiri honen helburua da orientabideak ematea lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen hezkuntza indartzeko banakako planak prestatzeko.

2. Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP)

↳ Zer da hezkuntza indartzeko banakako plana?

Hezkuntza indartzeko banakako plana dokumentu bat da, jasotzen duena zer errefortzu-jarduera aurreikusten diren ikasle jakin baten laguntza-premiei erantzuteko. Jarduera horiek gela arruntean garatuko dira, batez ere.

↳ Nork behar du hezkuntza indartzeko banakako plana?

Egoera hauetakoren batean dauden ikasleei zuzentzen zaie hezkuntza indartzeko banakako plana:

- Hurrengo ziklora (lehen hezkuntzan) edo hurrengo mailara (derrigorrezko bigarren hezkuntzan) igarotzen ez direnei.
- Arloren bat gainditu gabe duten lehen hezkuntzako ikasleei aurreko zikloan edo zikloetan.
- Lehen hezkuntzako arloren bat edo bigarren hezkuntzako aurreko mailetako irakasgairen bat gainditu gabe duten derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei.
- Ikasteko zailtasunak dituztenei arlo instrumental batean edo gehiagotan; zailtasun horiek izan daitezke hezkuntza-sisteman sartu berriak direlako, motibazio eskasa dutelako, euren gizarte-ingurunea ahula delako...

Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, beste programa espezifiko batzuetan sartuta daudenean (curriculum-aniztasuna, hezkuntza-errefortzu espezifiko programak, hizkuntz errefortzua...) ez dute HIBP egin beharrik izango, hau behar den programa espezifikoan garatuta dagoelako.

↳ Zertarako hezkuntza indartzeko banakako plana ?

Hezkuntza indartzeko banakako planaren helburua bikoitza da:

1. Segurtatzea ikasle guztiek lortzen dituztela oinarrizko hezkuntzako helburuak, eta, horretarako, laguntza guztia ematea oinarrizko gaitasunen maila egokiak lortzeko. Honetara bideratuko da laguntza :

· *Ikasteko zailtasunak dituen ikasleari oinarrizko teknika instrumentalak irakastera, oinarrizko hezkuntza arrakastaz lortzeko bermeaz ikas dezan.*

· *Ikasleen garapen integralean laguntzera, eremu guztietan: eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan.*

· *Ikasleetan, ikastearen aldeko jarrera positiboa eta aktiboa eragitera, arrakasta akademikoko esperientziak sustatuz.*

· *Antolatzeko eta lanean saiatzeko ohiturak sustatzera.*

· *Ikasleen pertsona-, eskola- eta gizarte-autoestimua indartzera*

· *Familiak inplikatzera, seme-alaben ikasketak hobetzeko.*

2. *Plangintza egitea irakasleek koordinatuta esku har dezaten, eta familien lankidetzatza segurtatzea, ikasle guztien laguntza-premiei erantzuteko.*

3. HIBP prestatzeko aldiak eta agenteak

↳ Hasierako fasea

Azken ebaluazio-saioan, tutoreak koordinatuta, **irakasle-taldeak** erabakiko du ikasleak mailaz pasatu behar duen ala ez.

Erabakitzen bada ikasleak beste urtebetez jarraitu behar duela zikloan (lehen hezkuntzan) edo mailan (bigarren hezkuntzan) edo arlo/irakasgai jakin batzuk gainditu gabe mailaz igo behar duela, **kontsultoreak** edo **orientatzaileak** aholkatuta, irakasle-taldeak baloratuko du zergatik erabaki duten hori, eta informazio garrantzitsua jasoko du (curriculum-maila, antzemandako premiak, egoki irizten dituzten oharrak), ikasleak ikasketak arrakastaz egin ditzan. Horrekin guztiarekin, zikloko azken txostena egingo da, hezkuntza-errefortzua antolatzeko. Prozesu honen eredia eransten dugu ([I. eranskina](#)).

Bigarren Hezkuntzako lehen kurtsora sartzen diren eta Lehen Hezkuntzako arloren bat gainditu gabe duten ikasleek aurreko paragrafoan aipatzen den informazio esanguratsua adieraziko dute etapa bukaerako banakako txostenean.

Inportantea da gure ikasleen hezkuntza-ibilbidea aurrera eramaten den ikastetxeen arteko koordinazioa eraginkorra izatea, ikasleen trantsizioa, tutoretza-lana eta hezkuntza-jardueren koordinazioa errazteari begira. Trantsizio horretan, batez ere, ikasleei buruzko informazio esanguratsu eta erabilgarria emango da, HIBP egiteko prozesuari begira.

Lehenengo aldi honetan bertan hasi behar da **familiekin** komunikazio dinamikoa ezartzen eta lankidetzan jarduten.

↳ Plangintza egin eta abian jartzeko aldia (hurrengo ikasturteko hasiera)

Irakasle-talde berriak, kontsultorearekin/orientatzailearekin batera, hezkuntza indartzeko banakako plana zehaztuko du ([II. eranskina](#)), abiapuntutzat hartuta aurreko taldeak egindako txostena.

Plan hori martxan jartzeko, programazioa egokitu beharko da, errefortzuak antolatu, eta planaren jarraipena koordinatu.

Bigarren Hezkuntzako etapan departamentu didaktikoek beren gain hartzen dute arloetako irakaskuntzak antolatu eta garatzearen ardura eta, horregatik, lankidetzan jardungo dute plan horren curriculum-esparrua egiteko prozesuan.

Aldi horretan, hasierako elkarrizketa bat egingo da familiarekin, finkatutako planaren berri emateko eta idatziz jasotzeko lankidetzakonpromisoak ([III. eranskina](#)).

Ikasketaburutzak onartuko du plana, eta ezarriko du zer aldatu behar den antolamenduan, HIBPetan jasotako errefortzu-proposamenak gauzatu ahal izateko.

Gizarte-zerbitzuen lankidetzaren kasuetan, baloratu egingo da hezkuntza indartzeko banakako plan honetan parte hartu behar duten.

📄 Jarraipen aldia (ikasturtean zehar)

Taldeko **irakasle** guztiek lan egingo dute gelan, ikasle bakoitzaren jarraipena egiten, segurtatzeko planifikatutako ekintzak eraginkorrak diren ala ez konprobatzeko, eta ez badira, ekintza horiek berriro bideratzeko.

Norbanako planean aurreikusitako bileretan, **irakasle-taldeak** jarraipena egingo dio norbanako planaren betetze-mailari: aurrerapausoak baloratu, eta egokitzen jotzen diren aldaketa sartuko dira.

Landutako gaiak, berriz, banakako planaren (II [eranskina](#)) jarraipeneko atalean jasoko dira, eta **ikasketa burutzari** emango zaio horren berri, egoki irizten den guztietan.

Kontsultoreak edo **orientatzaileak** aholkuak emango dizkio irakasle-taldeari prozesuan zehar. Ekarpenak egingo ditu, kontuan izanik bere prestakuntza, eta zer dakien ikaslearen eskola-ibilbidearen gainean eta aniztasunari erantzuteko ikastetxeko esparru orokorraren gainean. Era berean, kontu handia izango du diseinatutako ekintzak inklusiboak izan daitezen.

Aldi honetan, arreta berezia jarriko da **familiarikiko** lankidetzan; horretarako, ikasleari buruzko informazioa trukatu, eta familia-eremurako planean finkatutako alderdien jarraipena egingo da.

📄 Ebaluazio aldia (ikasturte-amaiera)

Irakasle-taldeak HIBPren azken ebaluazioa egingo du; horretarako, kontuan izango ditu, gutxienez, alderdi hauek:

- Planifikatutako ekintzen betetze-maila eta balorazioa.
- Ikasleak zer aurrerapen egin duen gaitasunak eskuratzen eta zer emaitza lortu duen.
- Familiarikiko lankidetzaren eta komunikazioa.
- Hurrengo ikasturtean planagaz jarraitu behar den ala ez.

Ikaslearen karpeta jasoko dira balorazio eta proposamenok.

Kontsultoreak edo **orientatzaileak** eta **ikasketa-buruak** azken ebaluazioan parte hartuko dute, eta balorazio garrantzitsuenak ikastetxeko dokumentazio orokorrean jasoko dituzte.

4. Esku hartzeko edukiak aukeratzeko irizpideak

Esku hartzeko irizpideak finkatzeko, kontuan izango da zer hezkuntza-premia duten programako ikasleek. Orokorrean arlo pertsonala, soziala, familia eta curriculum arloak landuko dira. Azken honen barruan, lehentasunez, **arlotako instrumentaletako** (euskara, gaztelania, matematika eta atzerriko hizkuntzako) edukiak eta prozedurak landuko dira, gutxieneko helburuak lortzeko, eta, horrela, oinarrizko gaitasunak garatuko direla bermatzeko.

Landu beharreko edukiak aukeratzeko estrategia moduan, abiapuntutzat jo daitezke aurreko ikasturtean gainditu gabe geratu ziren helburu edo ebaluazio- irizpideak. Horretarako, irakasle-taldeak aurretik zehaztuta izan behar du ikasturte amaierako txostenean gainditu gabeko zein arlotako/irakasgaitako zer helburu/ebaluazio-adierazle egiten duen ikasleak modu autonomoan, zeintzuk egin ahal dituen lagunduta, eta zeintzuk ez.

5. Errefortzuko ikasleekin esku hartzeko irizpideak

Orokorrean, errefortzuko ikasleek nork bere erreferentzia-taldean lan egingo dute. Norbanako planean arlo jakin batzuetarako aurreikusitako esku-hartzeak gorabehera, gelan lan egiten duten **irakasle guztien** erantzukizuna da **banakako jarraipena** egitea klaserako proposatzen diren ariketei. Irakasleak, sistematikoki, **tarteak** hartuko ditu, ikasleengana jotzeko/hurbiltzeko honako hauek egiteko:

- Segurtatzeko azalpenak ulertzen dituztela
- Begiratzeko ea ariketak egiten dituzten ala ez.
- Antzemateko prozesuko zailtasunak, eta aukerak proposatzeko
- **Motibatzeko**, konparatuz zer egin ahal zuen sekuentzia didaktiko bat egin baino lehenago eta zer egin ahal duen hori egin ostean.
- Laguntzeko taldearen dinamikan integratzen.
- Jarraibideak emateko, materialak antolatzeko eta etxeko lanak egiteko.

Gure ikasle guztiek arrakasta izatea nahi badugu, arrakasta lortzeko espektatiba handiak izan beharko ditugu denentzat. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, berriz, espektatiba horiek egokiak izan behar dute ikasle bakoitzarentzat. Horrek esan nahi du irakasleak, ahal duen neurrian, ikaslea errefortzatu egin behar duela ikasteko egoera planifikatu batean, zeinak aintzat izango duen zein mailatan dagoen ikaslea, eta, bestalde, ikasleak egiteko moduko ariketak proposatuko dituen. Garrantzitsua da ikasleak motibazioa ez galtzea eta une oro kontziente izatea ikasketetan egiten dituen aurrerapausoez.

Kontuan izango dira **estrategia metodologikoak**, hain zuzen ere ikasle guztien partaidetza erraztu eta norberaren ikaskuntza eraikitzen dutenak: ikasketa kooperatiboa, berdinen arteko tutoretza, atazetan/proiektuetan oinarritutako ikasketak, kontratu didaktikoa, ikasteko eta komunikatzeko teknologiak erabiltzea, talde interaktiboak...

Ariketak aukeratzean, lehenasuna emango diegu honako hauei: interakzioa eta talde-lana sustatzen dutenei; proposamen orokor bat abiapuntutzat hartuta hainbat ebazte- eta konplexutasun-maila eskaintzen dituztenei, eta ikasle guztien arrakasta errazten dutenei, batez ere zailtasun gehien dituzten ikasleen arrakasta errazten dutenei.

Errefortzuko plana arrakastatsua izan dadin, behar-beharrezkoa da planean parte hartzen duten profesionalak koordinatzea, eta denek irizpide berak jarraitzea. Partekatuz gero estrategia arrakastatsuak eta aurkitutako zailtasunak, batasun horrek on egingo dio ikasleari, eta klasea edo irakaslea aldatzea ez da izango beste eragozpen bat berarentzat.

6. Tutore-lana

Ikaslean, porrot-sentimenduak eragin ditzake kurtsoa errepikatzeak edo gaintitu gabeko arloak izanik mailaz igotzeak; beraz, talde osoari zuzendutako tutore-programaz gain, komenigarria litzateke hainbat ekimen zehatz burutzea, sentimendu horiek konpentsatu eta lantzen laguntzeko. Errefortzu-planak arrakasta izateko, oso inportantea da ikaslearekin lotura afektibo egokia lortzea. "Banakako tutoretza" oso estrategia mesedegarria da honako hau lortzeko:

- Ikasleari laguntzeko porrot-sentimendu hori lantzen, eta nabarmen uzteko aukera ematen diola ikasitakoa hobetzeko.
- Ikaslea beste talde baten gizarteratzea bermatzeko.
- Ikasleari laguntzeko ulertzen proposatzen zaion errekupeazio-plana, eta ikaslea planarekin konprometitzeko.

Hezkuntza-kontratua tresna probetxugarria da, ikasleak planean inplikatzeko ([IV eranskina](#)). Kontratuok laburrak izan behar dute (aste batekoak edo bikoak, adinaren arabera), eta bertan jasotzen diren konpromisoek izan behar dute errealistak, zehatzak eta neurtzeko modukoak, ikasleek eurek ebaluatu ahal izan ditzaten.

7. Familiekiko hartu-emanak

Familia eta ikastetxearen arteko lankidetza funtsekoa eskola-arrakasta lortzeko. Hori hala bada kasu guztietan, are garrantzitsuagoa da eskolan zailtasunak dituzten ikasleentzat. Ez dugu ahaztu behar ikasle horiekin egiten diren ekintza batzuek jarraipena izan behar dutela familia-eremuan: lehen hezkuntzan, irakurtzen, idazten eta kalkulatzen hasteak eta jarduera horietan aurrera egiteak; oinarrizko hezkuntza osoan, autonomia, ikasteko denbora antolatzeak, erantzukizunak norberaganatzeak, motibazioa, bere lanaren balorazioa, ikasketetan egindako ahalegina eta konstantzia ...

Lankidetza hori arriskuan jar daiteke, familiak ez duenean ulertzen “mailaz ez igotzea” edo errepikatzea porrot-tzat jotzen duenean. Horrenbestez, tutoreak modu proaktiboan jokatzeko funtsezkoa da eskola eta familiaren arteko hartu-emanak egokiak izan daitezen.

Familiei egin beharreko lankidetza-proposamenak:

- Elkarrenganako konfiantzan oinarritu behar dute, eta ikaslearen alderdi positiboak nabarmendu, negatiboen gainetik, errudunik bilatu gabe.
- Zehatzak izan behar dute: ondo definituak eta denboran mugatuak. Ihes egin behar diegu orokortasunei (*gehiago ikasi behar du, interes gehiago jarri behar du...*), eta ekintza zehatzak proposatu behar ditugu: *irakur dezagun elkarrekin astean “x” bider, material hauekin eta honela, egunero kontrolatuko ditugu agendaren eginkizun eta lanak, mugatuko dugu telebista ikusteko denbora eta hamabostean behin jarriko gara tutorearekin edota irakaslearekin harremanetan.*
- Adostuak izan behar dute: zenbat eta gehiago partekatu helburua, handiagoa izango da hezkuntza-potentziala.
- Errealistak izan behar dute; familiak sentitu behar du ekintza horiek egiteko gai dela.
- Jarraibideak, materialak... eskaini behar dira, familiak egin ahal izan ditzan.
- Aurreikusita izan behar dute jarraipena eta baterako ebaluazioa.
- Nabarmendu egin behar dute mesedegarriak izango direla ikaslearentzat.

Hainbat arrazoi direla-eta, familiarekiko lankidetza zaila denean, baloratu beharko da ea eskatu behar zaien gizarte-zerbitzuei parte hartzeko, eta aprobetxatu beharko da hainbat ekimen eskaintzen dituztela, talde edo elkarteek egiten dituztenak eskolaz kanpoko ordutegian.

Eranskinak

I. Eranskina
Anexo I
IKASTURTE AMAIERAKO TXOSTENA – HEZKUNTZA-ERREFORTZURAKO PROPOSAMENA
 MODELO DE INFORME DE FINAL DE CURSO - PROPUESTA PARA EL REFUERZO EDUCATIVO
LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

IKASLEAREN DATUAK DATOS DEL ALUMNO/A	LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO	IZENA / NOMBRE
	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO	TUTOREA / TUTOR-A	TALDEA / GRUPO
HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUEN EGOERA BEREZIA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO EDUCATIVO			
	Ziklo berean beste urtebete ari den ikaslea <i>alumno-a que permanece un año más en el ciclo</i>		
	Arloren batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea <i>alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las áreas</i>		
	Beste batzuk (zehaztu) <i>otros (especificar):</i>		

1. IKASKETEN HISTORIALAREN LABURPENA / SÍNTESIS DEL HISTORIAL EDUCATIVO

Informazio esanguratsua: txosten medikoak edo psikopedagogikoak, ikastetxe-aldaketak, absentismoa, jasotako laguntza, gainditu gabeko arloak, errepikapenak, familia-egoera...

Información significativa: informes médicos o psicopedagógicos, cambios de centros, absentismo, apoyos recibidos, áreas no superadas, repeticiones, situación familiar...

2. IKASLEARENTZAT, IKASTEKO ERRAZTASUN EDO ZAILTASUN DIREN GORABEHERA ESANGURATSUAK:
ASPECTOS RELEVANTES QUE DIFICULTAN O FAVORECEN EL APRENDIZAJE DEL ALUMNO/A

	oztopatzen du <i>difficulta</i>			laguntzen du <i>favorece</i>		
	1	2	3	4	5	6
Asistentzia Asistencia						
Gelan duen parte-hartzea Participación en el aula						
Ikasketa-ohiturak Hábitos de estudio						
Ikasteko motibazioa Motivación para aprender						
Arreta-maila <i>nivel de atención</i>						
Autonomia-maila <i>Grado de autonomía</i>						
Erantzukizuna eta autoexijentzia Responsabilidad y autoexigencia						
Ikaskideekiko harremana Relación con los compañeros –as						
Helduekiko harremana Relación con los adultos						
Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetz Colaboración familia-centro						

3. HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUTEN EREMUAK-ARLOAK / ÁMBITOS Y ÁREAS QUE NECESITAN REFUERZO EDUCATIVO

Ondorengo tauletan jartzen dugun informazioa abiapuntua izango da datorren ikasturteko irakasle-taldeak hezkuntza indartzeko banakako plana egin dezan; beraz, zeregin horretan lagungarri den edozer jaso behar dugu.

La información que pongamos en las siguientes tablas será el punto de partida para el equipo docente del próximo curso elabore el Plan individual de refuerzo educativo, por ello debemos recoger todo aquello que facilite dicha tarea.

ALOR PERTSONALA / ÁMBITO PERSONAL

ALOR SOZIALA / ÁMBITO SOCIAL

FAMILIA-ARLOA / ÁMBITO FAMILIAR

--

CURRICULUMAREN ARLOA / ÁMBITO CURRICULAR

Garrantzitsua da atal honetan ebidentzia, datu, emaitza... zehatzak ematea. Atal honetan, jasota utzi behar dira ikaslearen helburuak eta ebaluazio-adierazleak, hala modu autonomoan egiten dituenak, nola lagunduta egin behar dituenak eta lortu ez dituenak. Helburua da informazio hau jasotzen duen irakasleak ikaslearen diagnostiko egokia izatea lehenengo unetik.

Es importante que en este apartado facilitemos evidencias, datos, resultados... concretos. Se trata de explicitar los objetivos e indicadores de evaluación que el alumno o alumna realiza de forma autónoma, aquellos en los que necesita ayuda y aquellos que no ha alcanzado. El objetivo es que el profesor o profesora que reciba esta información tenga un buen diagnóstico del alumno o alumna desde el primer momento.

EUSKARA / EUSKERA:

Ahozkoaren ulermena *comprensión oral:*

Ahozkoaren adierazmena *expresión oral:*

Irakurmena *comprensión escrita*

Idazmena *expresión escrita:*

GAZTELANIA / LENGUA CASTELLANA:

Ahozkoaren ulermena *comprensión oral:*

Ahozkoaren adierazmena *expresión oral:*

Irakurmena *comprensión escrita*

Idazmena *expresión escrita:*

ATZERRIKO HIZKUNTZA / LENGUA EXTRANJERA:	
Ahozkoaren ulermena <i>comprensión oral:</i>	Ahozkoaren adierazmena <i>expresión oral:</i>
Irakurmena <i>comprensión escrita</i>	Idazmena <i>expresión escrita:</i>

MATEMATIKA / MATEMÁTICAS:	
Zenbaketa <i>numeración:</i>	Kalkulua <i>cálculo:</i>
Neurriak <i>medidas:</i>	Espazioa, irudi geometrikoak <i>espacio, formas geométricas</i>
Problemen ebazpena <i>resolución de problemas:</i>	

_____ / _____:	

4. GOMENDIOAK IKASLEAREKIN LAN EGITEKO / RECOMENDACIONES PARA EL TRABAJO CON EL ALUMNO-A

Ikaslearekin izandako esperientzia kontuan izanda eta ikaslea ezagututa, daturik egokienak eta garrantzitsuenak eman behar dira datorren ikasturtean harekin lan egiteko: zein alderditan jarri behar dugun arreta, zeintzuk diren ikaslearengana hurbiltzeko estrategia arrakastatsuenak, zein jarduerari erantzuten dien ondoen, zer kostatzen zaion gehien...

Desde la experiencia y el conocimiento del alumno o alumna se trata de aportar los datos que se consideren más adecuadas y relevantes para el trabajo con el alumno o alumna durante el curso siguiente: aspectos a los que debemos prestar atención, estrategias de acercamiento al alumno-a más exitosas, metodologías o actividades a las que responde mejor o que le cuesta más...


II. Eranskina
Anexo II
HEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO
LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

IKASLEAREN DATUAK DATOS DEL ALUMNO/A	LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO	IZENA / NOMBRE
	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO	TUTOREA / TUTOR-A	TALDEA / GRUPO
	HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUEN EGOERA BEREZIA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO EDUCATIVO		
	Ziklo berean beste urtebete ari den ikaslea <i>alumno-a que permanece un año más en el ciclo</i>		
	Arloren batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea <i>alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las áreas</i>		
Beste batzuk (zehaztu) <i>otros (especificar):</i>			

1. ERREFORTZUA BEHAR DUTEN EREMUAK / ÁMBITOS A REFORZAR:

ALOR PERTSONALA / ÁMBITO PERSONAL

ALOR SOZIALA / ÁMBITO SOCIAL

FAMILIA ARLOA / ÁMBITO FAMILIAR

CURRICULUMAREN ARLOA / ÁMBITO CURRICULAR

EUSKARA / EUSKERA:

Errefortzua behar duten oinarrizko edukiak *contenidos básicos a reforzar:*

Metodologia *metodologia*

Material lagungarriak *materiales de apoyo*

Ebaluazioa *evaluación*

GAZTELANIA / LENGUA CASTELLANA:

Errefortzua behar duten oinarrizko edukiak *contenidos básicos a reforzar:*

Metodologia *metodologia*

Material lagungarriak *materiales de apoyo*

Ebaluazioa *evaluación*

ATZERRIKO HIZKUNTZA / LENGUA EXTRANJERA:
Errefortzua behar duten oinarrizko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
.....
Metodologia <i>metodologia</i>
.....
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo</i>
.....
Ebaluazioa <i>evaluación</i>
.....

MATEMATIKA / MATEMÁTICAS:
Errefortzua behar duten oinarrizko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
.....
Metodologia <i>metodologia</i>
.....
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo</i>
.....
Ebaluazioa <i>evaluación</i>
.....

_____ / _____:
Errefortzua behar duten oinarrizko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
.....
Metodologia <i>metodologia</i>
.....
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo</i>
.....
Ebaluazioa <i>evaluación</i>
.....

2. ERREFORTZUAREN ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN DEL REFUERZO:

Hezkuntza-errefortzua <i>refuerzo educativo:</i>	Arduraduna eta eragileak <i>responsable y agentes:</i>	Denboralizazioa <i>tiempos:</i>	Oharrak <i>observaciones:</i>
EUSKARA EUSKERA			
GAZTELANIA LENGUA CASTELLANA			
ATZERRIKO HIZKUNTZA LENGUA EXTRANJERA			
MATEMATIKA MATEMÁTICAS:			

3. HIBParen JARRAIPENA ETA BALORAZIOA / SEGUIMIENTO Y VALORACIÓN DEL PIRE:

IRAKASLE TALDEA / EQUIPO DOCENTE			
Bilera programatuak <i>reuniones programadas:</i>	Balorazioa eta akordioak <i>valoración y acuerdos:</i>		
1. ebaluazioa <i>1ª evaluación</i>			
2. ebaluazioa <i>2ª evaluación</i>			
3. ebaluazioa <i>3ª evaluación</i>			
Hurrengo ikasturterako proposamena <i>Propuesta para el siguiente curso</i>			

FAMILIA / FAMILIA			
Bilera programatuak <i>reuniones programadas:</i>	Balorazioa eta akordioak <i>valoración y acuerdos:</i>		
1. ebaluazioa <i>1ª evaluación</i>			
2. ebaluazioa <i>2ª evaluación</i>			
3. ebaluazioa <i>3ª evaluación</i>			



III. Eranskina Anexo III

HEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO FAMILIEKIN BATERA LAN EGITEKO KONPROMISOA / COMPROMISO DE COLABORACIÓN CON FAMILIAS LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

CEP LHI

...../..... ikasturtean,
..... ikasleak
hezkuntza indartzeko banakako plan bati jarraituko dio,
eskolan duen atzerapena gainditzeko.

Durante el curso/....., el alumno/la alumna
..... va a seguir un
plan individual de refuerzo educativo con el objetivo de
superar el retraso escolar que presenta.

Programa arrakastatsua izan dadin, guk,
.....,
ikaslearen aita, ama edo legezko arduraduna garen
aldetik, konpromisoa hartzen dugu gure
semearen/alabaren tutore den
.....(r)ekin lankidetzan
jarduteko zeregin hauetan:

Para lograr el éxito del programa
.....
en calidad de padre, madre o responsable legal, nos
comprometemos a colaborar con
..... tutor/a de nuestro/a
hijo/a en las siguientes tareas:

(adibide gisa)

(a modo de ejemplo)

- Bere agenda egunero berrikustea.
- Motxila antolatzen laguntzea. Horrela beharrezkoa den materiala klasera eramango duela bermatuko dugu.
- Tutoreak emandako metodologia eta materialekin ordu erdiko irakurketa-saioa astean bitan.
- ...

- Revisar diariamente su agenda.
- Ayudarle a organizar su mochila para garantizar que lleva a clase el material necesario.
- Realizar dos veces por semana una sesión de lectura de media hora de duración, con los materiales y metodología que facilite el/la tutor-a.
- ...

Horretan laguntzeko,
tutoreak, irakasle-taldearen izenean, konpromiso hauek
hartzen ditut:

Para facilitar esta tarea,
....., el tutor/a, en nombre del equipo
docente, me comprometo a:

- Egunero agendaren jarraipena egitea eta, horren bitartez, intereseko informazioa jakinaraztea familiari.
- ...

- Hacer seguimiento diario de la agenda y comunicar mediante ella la información de interés a la familia.
- ...

.....(e)n, (e)ko,(a)ren (ea)n

..... de de

familia

tutorea tutor/a

IV. Eranskina
Anexo IVHEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO
IKASLEAREKIN EGIN BEHARREKO HEZKUNTZA-KONTRATUA / MODELO DE CONTRATO EDUCATIVO CON EL ALUMNO/A
LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TALDEA / GRUPO
<p>..... maisu-maistrak eta nik, , ikastetxean egiten dudan lanaz hitz egin ondoren, hauxe adostu dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Agenda erabiliko dut etxean egin beharreko lana eta zereginak idazteko.</i> • <i>Etxean, astean bitan, ordu erdiko irakurketa-saioa egingo dut.</i> • <i>Eskolako zereginen bat nola egin ez dakidanean, laguntza eskatuko dut. Baten batek eskatuz gero neuk ere emango diot laguntza.</i> • 	<p>El/la maestro-ay yo,, después de hablar sobre mi trabajo en la escuela, hemos acordado que:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Voy a utilizar la agenda para apuntar el trabajo y tareas que haya que hacer en casa.</i> • <i>Dos veces por semana voy a hacer en casa una sesión de lectura de media hora.</i> • <i>Cuando no sepa cómo realizar una tarea de clase voy a pedir ayuda y también voy a ayudar yo cuando alguien me lo pida.</i> •
<p>Nire lana eta esfortzua baloratuko dira..... </p>	<p>Mi trabajo y mi esfuerzo serán valorados</p>
<p>Nire irakasleak/tutoreak konpromisoa hartzen du laguntzeko eta orientatzeko; baita nire lana eta esfortzua baloratzeko ere.</p>	<p>Mi profesor/ra / tutor-a se compromete a ayudarme y orientarme, así como a valorar mi trabajo y esfuerzo.</p>
<p>.....(e)n, (e)ko,(a)ren (ea)n , de de</p>	
<p>Ikaslea el alumno-a</p>	<p>irakaslea/tutorea el profesor-a /tutor-a</p>

I. Eranskina
Anexo IIKASTURTE AMAIERAKO TXOSTENA – HEZKUNTZA-ERREFORTZURAKO PROPOSAMENA
MODELO DE INFORME DE FINAL DE CURSO - PROPUESTA PARA EL REFUERZO EDUCATIVO
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

IKASLEAREN DATUAK DATOS DEL ALUMNO/A	LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO	IZENA / NOMBRE
	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO	TUTOREA / TUTOR-A	TALDEA / GRUPO
	HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUEN EGOERA BEREZIA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO EDUCATIVO		
	Ikasturte berean beste urtebete ari den ikaslea <i>alumno-a que permanece un año más en el curso</i>		
	Gairen batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea <i>alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las materias</i>		
	Lehen mailako ikasle berria, lehen hezkuntzako arlo batzuk gainditzeke dituen <i>alumno-a nuevo-a en 1º con algunas áreas de Primaria sin superar</i>		
	Beste batzuk (zehaztu) <i>otros (especificar):</i>		

1. IKASKETEN HISTORIALAREN LABURPENA / SÍNTESIS DEL HISTORIAL EDUCATIVO

Informazio esanguratsua: txosten medikoak edo psikopedagogikoak, ikastetxe-aldaketak, absentismoa, jasotako laguntza, gainditu gabeko arloak, errepikapenak, familia-egoera...

Información significativa: informes médicos o psicopedagógicos, cambios de centros, absentismo, apoyos recibidos, áreas no superadas, repeticiones, situación familiar...

2. IKASLEARENTZAT, IKASTEKO ERRAZTASUN EDO ZAILTASUN DIREN GORABEHERA ESANGURATSUAK:
ASPECTOS RELEVANTES QUE DIFICULTAN O FAVORECEN EL APRENDIZAJE DEL ALUMNO/A

	oztopatzen du <i>dificulta</i>			laguntzen du <i>favorece</i>		
	1	2	3	4	5	6
Asistentzia Asistencia						
Gelan duen parte-hartzea Participación en el aula						
Ikasketa-ohiturak Hábitos de estudio						
Ikasteko motibazioa Motivación para aprender						
Arreta-maila <i>nivel de atención</i>						
Autonomia-maila <i>Grado de autonomía</i>						
Erantzukizuna eta autoexijentzia Responsabilidad y autoexigencia						
Ikaskideekiko harremana Relación con los compañeros –as						
Helduekiko harremana Relación con los adultos						
Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetz Colaboración familia-centro						

3. HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUTEN EREMUAK-GAIK / ÁMBITOS Y MATERIAS QUE NECESITAN REFUERZO EDUCATIVO

Ondorengo tauletan jartzen dugun informazioa abiapuntua izango da datorren ikasturteko irakasle-taldeak hezkuntza indartzeko banakako plana egin dezan; beraz, zeregin horretan lagungarri den edozer jaso behar dugu.

La información que pongamos en las siguientes tablas será el punto de partida para el equipo docente del próximo curso elabore el Plan individual de refuerzo educativo, por ello debemos recoger todo aquello que facilite dicha tarea.

ALOR PERTSONALA / ÁMBITO PERSONAL

ALOR SOZIALA / ÁMBITO SOCIAL

FAMILIA-ARLOA / ÁMBITO FAMILIAR

--

CURRICULUMAREN ARLOA / ÁMBITO CURRICULAR

Garrantzitsua da atal honetan ebidentzia, datu, emaitza... zehatzak ematea. Atal honetan, jasota utzi behar dira ikaslearen helburuak eta ebaluazio-adierazleak, hala modu autonomoan egiten dituenak, nola lagunduta egin behar dituenak eta lortu ez dituenak. Helburua da informazio hau jasotzen duen irakasleak ikaslearen diagnostiko egokia izatea lehenengo unetik.

Es importante que en este apartado facilitemos evidencias, datos, resultados... concretos. Se trata de explicitar los objetivos e indicadores de evaluación que el alumno o alumna realiza de forma autónoma, aquellos en los que necesita ayuda y aquellos que no ha alcanzado. El objetivo es que el profesor o profesora que reciba esta información tenga un buen diagnóstico del alumno o alumna desde el primer momento.

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:

Oharrak observaciones:	

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:

Oharrak observaciones:	

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:	
Oharrak <i>observaciones</i> :	

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:	
Oharrak <i>observaciones</i> :	

4. GOMENDIOAK IKASLEAREKIN LAN EGITEKO / RECOMENDACIONES PARA EL TRABAJO CON EL ALUMNO-A

Ikaslearekin izandako esperientzia kontuan izanda eta ikaslea ezagututa, daturik egokienak eta garrantzitsuenak eman behar dira datorren ikasturtean harekin lan egiteko: zein alderditan jarri behar dugun arreta, zeintzuk diren ikaslearengana hurbiltzeko estrategia arrakastatsuenak, zein jarduerari erantzuten dien ondoen, zer kostatzen zaion gehien...

Desde la experiencia y el conocimiento del alumno o alumna se trata de aportar los datos que se consideren más adecuadas y relevantes para el trabajo con el alumno o alumna durante el curso siguiente: aspectos a los que debemos prestar atención, estrategias de acercamiento al alumno-a más exitosas, metodologías o actividades a las que responde mejor o que le cuesta más...

II. Eranskina
Anexo IIHEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

IKASLEAREN DATUAK DATOS DEL ALUMNO/A	LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO	IZENA / NOMBRE
	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO	TUTOREA / TUTOR-A	TALDEA / GRUPO
	HEZKUNTZA INDARTZEKO PLANA ESKATZEN DUEN EGOERA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO EDUCATIVO		
	Ikasturte berean beste urtebete ari den ikaslea <i>alumno-a que permanece un año más en el curso</i>		
	Gairen batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea <i>alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las materias</i>		
Lehen mailako ikasle berria, lehen hezkuntzako arlo batzuk gainditzeke dituen <i>alumno-a nuevo-a en 1º con algunas áreas de Primaria sin superar</i>			
Beste batzuk (zehaztu) <i>otros (especificar):</i>			

1. ERREFORTZUA BEHAR DUTEN EREMUAK / ÁMBITOS A REFORZAR:

ALOR PERTSONALA / ÁMBITO PERSONAL

ALOR SOZIALA / ÁMBITO SOCIAL

FAMILIA ARLOA / ÁMBITO FAMILIAR

CURRICULUMAREN ARLOA / ÁMBITO CURRICULAR

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:

Indartu beharreko oinarriko edukiak *contenidos básicos a reforzar:*

Metodologia *metodología:*

Material lagungarriak *materiales de apoyo:*

Ebaluazioa *evaluación:*

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:

Indartu beharreko oinarriko edukiak *contenidos básicos a reforzar:*

Metodologia *metodología:*

Material lagungarriak *materiales de apoyo:*

Ebaluazioa *evaluación:*

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:
Indartu beharreko oinarriko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
Metodologia <i>metodología:</i>
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo:</i>
Ebaluazioa <i>evaluación:</i>

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:
Indartu beharreko oinarriko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
Metodologia <i>metodología:</i>
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo:</i>
Ebaluazioa <i>evaluación:</i>

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:
Indartu beharreko oinarriko edukiak <i>contenidos básicos a reforzar:</i>
Metodologia <i>metodología:</i>
Material lagungarriak <i>materiales de apoyo:</i>
Ebaluazioa <i>evaluación:</i>

2. ERREFORTZUAREN ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN DEL REFUERZO:

Hezkuntza-errefortzua <i>refuerzo educativo:</i>	Arduraduna eta eragileak <i>responsable y agentes:</i>	Denboralizazioa <i>tiempos:</i>	Oharrak <i>observaciones:</i>
ALOR PERTSONALA ÁMBITO PERSONAL			
ALOR SOZIALA ÁMBITO SOCIAL			
FAMILIA ARLOA ÁMBITO FAMILIAR			
IRAKASGAIA ASIGNATURA:			
IRAKASGAIA ASIGNATURA:			
IRAKASGAIA ASIGNATURA:			

3. HIBParen JARRAIPENA ETA BALORAZIOA / SEGUIMIENTO Y VALORACIÓN DEL PIRE:

IRAKASLE TALDEA / EQUIPO DOCENTE			
Bilera programatuak <i>reuniones programadas:</i>	Balorazioa eta akordioak <i>valoración y acuerdos:</i>		
1. ebaluazioa <i>1ª evaluación</i>			
2. ebaluazioa <i>2ª evaluación</i>			
3. ebaluazioa <i>3ª evaluación</i>			
Hurrengo ikasturterako proposamena <i>Propuesta para el siguiente curso</i>			

FAMILIA / FAMILIA			
Bilera programatuak <i>reuniones programadas:</i>	Balorazioa eta akordioak <i>valoración y acuerdos:</i>		
1. ebaluazioa <i>1ª evaluación</i>			
2. ebaluazioa <i>2ª evaluación</i>			
3. ebaluazioa <i>3ª evaluación</i>			

III. Eranskina
Anexo IIIHEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO
FAMILIEKIN BATERA LAN EGITEKO KONPROMISOA / COMPROMISO DE COLABORACIÓN CON FAMILIAS
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

IES.....BHI

...../..... ikasturtean,
..... ikasleak
hezkuntza indartzeko banakako plan bati jarraituko dio,
eskolan duen atzerapena gainditzeko.

Durante el curso/....., el alumno/la alumna
..... va a seguir un
plan individual de refuerzo educativo con el objetivo de
superar el retraso escolar que presenta.

Programa arrakastatsua izan dadin, guk,
.....,
ikaslearen aita, ama edo legezko arduraduna garen
aldetik, konpromisoa hartzen dugu gure
semearen/alabaren tutore den
.....(r)ekin lankidetzan
jarduteko zeregin hauetan:

Para lograr el éxito del programa
.....
en calidad de padre, madre o responsable legal, nos
comprometemos a colaborar con
..... tutor/a de nuestro/a
hijo/a en las siguientes tareas:

(adibide gisa)

- *Egunero, zereginen eta lanen jarraipena egitea eskola-agendaren bitartez.*
- *Hamabostero, matematika-irakaslearekin egotea.*
- *Ziurtatzea astelehen, asteazken eta ostiraletan orubete emango duela matematikako edukiak eta gaitasunak birpasatzen eta lantzen.*
- ...

(adibide gisa)

- *Hacer un seguimiento diario de las tareas y trabajos mediante la agenda escolar.*
- *Mantener una comunicación quincenal con la profesora de Matemáticas.*
- *Asegurarse que los lunes, miércoles y viernes dedicará una hora para repasar y trabajar los contenidos y competencias de matemáticas.*
- ...

Horretan laguntzeko,
tutoreak, irakasle-taldearen izenean, konpromiso hauek
hartzen ditut:

Para facilitar esta tarea,
....., el tutor/a, en nombre del equipo
docente, me comprometo a:

- *Egunero/astero agendaren jarraipena egitea eta, horren bitartez, intereseko informazioa jakinaraztea familiari (lanak, zereginak eta aurrerapenak).*
- ...

- *Hacer seguimiento diario/semanal de la agenda y comunicar mediante ella la información de interés (trabajos, tareas y progresos) a la familia.*
- ...

.....(e)n, (e)ko,(a)ren (ea)n

....., de de

familia

tutorea tutor/a

IV. Eranskina
Anexo IVHEZKUNTZA INDARTZEKO BANAKAKO PLANA / PLAN INDIVIDUAL DE REFUERZO EDUCATIVO
IKASLEAREKIN EGIN BEHARREKO HEZKUNTZA-KONTRATUA / MODELO DE CONTRATO EDUCATIVO CON EL ALUMNO/A
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TALDEA / GRUPO
<p>..... irakasleak/tutoreak eta nik,, institutuan egiten dudan lanaz hitz egin ondoren, hauxe adostu dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Agenda erabiliko dut etxean egin beharreko lana eta zereginak idazteko.</i> • <i>Etzerako proposatzen diren zeregin eta lan guztiak egingo ditut.</i> • <i>Matematika-eskoletan, nire jarrera aktiboa izango da, eta proposatzen diren zeregin eta lan guztiak egingo ditut.</i> • <i>Astelehen, asteazken eta ostiraletan, ordubete emango dut matematikako edukiak eta gaitasunak birpasatzen eta lantzen.</i> • <i>Eskolako zereginen bat nola egin ez dakidanean, laguntza eskatuko dut.</i> • 	<p>El profesor-a / tutor-ay yo,, después de hablar sobre mi trabajo en el Instituto, hemos acordado que:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Voy a utilizar la agenda para apuntar el trabajo y tareas que haya que hacer en casa.</i> • <i>Realizaré todas las tareas y trabajos que se propongan para casa.</i> • <i>En clase de matemáticas mi actitud será activa y realizaré todas las tareas y trabajos que se propongan.</i> • <i>Los lunes, miércoles y viernes dedicaré una hora para repasar y trabajar los contenidos y competencias de matemáticas.</i> • <i>Cuando no sepa cómo realizar una tarea de clase voy a pedir ayuda.</i> •
<p>Nire lana eta esfortzua baloratuko dira.....</p>	<p>Mi trabajo y mi esfuerzo serán valorados</p>
<p>Nire irakasleak/tutoreak konpromisoa hartzen du laguntzeko eta orientatzeko; baita nire lana eta esfortzua baloratzeko ere.</p>	<p>Mi profesor/ra / tutor-a se compromete a ayudarme y orientarme, así como a valorar mi trabajo y esfuerzo.</p>
<p>.....(e)n, (e)ko,(a)ren (ea)n, de de</p>	
<p>Ikaslea <i>el alumno-a</i></p>	<p>irakaslea/tutorea <i>el profesor-a /tutor-a</i></p>